


Ainhoa Aseginolaza Arakistain

B maila • Aipamena

Ainhoa Aseginolaza naiz, ia 15 urte dituen eta Legorretan bizi den neska gaztea. Oianguren institutuan ikasten dut, 3. DBH-n. Txikitatik izan dut idazteko zaletasuna, nire irudimenean murgildurik burura etortzen zaidana paperera pasatzeko zaletasuna. Nolabait, beste zenbait ekintzez gain, idazteak aske sentiarazten nau.

Kirola eta musika nire zaletasun gustokoenetariakoak dira. Kirol guztiak gogokoak izan arren, saskibaloian aritzen naiz gehienbat, Legorretako talde txiki batean. Pianoa jotzea, musika entzutea, dantzatzea...ere atsegin ditut. Ilusio handia egin dit sari honek, horregatik espero dut nire bertsoaz gozatzea.



Doinua: triste bizi naiz

SARE SOZIALAK

Gaur egungo arazo
guztien artean
sareak jarri ditut
mahaiaren gainean
hauen eragina da
txarra normalean
dena biltzen dute ta
iluntasunean

Sare sozialak dira
oraingo zentroa
gezur ta itxurakeri
askoren multzoa
jende ezezagunez
osatutakoa
beste edozer baino
arriskutsugoa

BERTSOAK

Errealitate bat
ezkutatzen dute
eta faltsukeriez
gu biltzen gaituzte
esaera zahar bat
esan nahiko nuke
“urrun hamalau intxaur
ta hurbil lau daude”

Maltzurkeriak daude
baitare kritikak
enpatiarik gabe
daudenak eginak
ta sarri ahazten zaigu
geala gizakiak
inperfekzioekin
azkenen berdinak

“Normaltasuna” dugu
burun itsatsita
sareen gehiengoa
arautzat jarrita
non daude bereziak?
non dau zure txispa?
denok gustuko dugu
gizarte anitza

Denbora pasa zaigu
pantailei beidatzen
besteen ekintzetan
arreta guk jartzen
utz ditzagun gailuak
behingoz albo baten
has gaitezen guztiok
bizitza dastatzen